

KONTROL MOZIOA

Zurriola hondartzako zonifikazioa egokitze beharraz

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko irailaren 15ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetako hondartza denboraldietan errepikatu den moduan, aurten ere maiz errepikatu da Gros auzoko bizilagunen eta, orokorrean, Zurriola hondartzara bainua hartzera hurbildu diren herritarren artean eztabaida: izan ere, herritar ugari kexu da hondartzan bainu-hartzaileek duten espazio kaskarraz. Duela urte batzuetatik hona, Zurriola hondartza zonifikatua da, surflarien eta bainu-hartzaileen elkarbizitza eta segurtasuna bilatzeko helburuaz, surflarien eta bainu-hartzaileen espazioak banatuz. Ez dugu zalantzarik bi jarduerak banatzeko irizpidea ezinbestekoa dela, bi jarduerak zaindu eta mantendu nahi baditugu.

Zentzu horretan, ez dago soberan aipatzea Zurriola surfa egiteko erreferentziazko hondartza bilakatu dela, eta balioan jartzen dugula aktibitate horrek Gros auzoari eta baita hiriarri ere egiten dion ekarpena. Era berean, Zurriola izan da Groseko bizilagunek, baita beste donostir zein Gipuzkoar askok eta askok itsasoan bainatzeko izan duten begiko hondartza. Hori horrela, uste dugu zentzuzkoa dela kalean (baita sare sozialetan eta medioen iritzia jasotzeko hainbat postontzitan ere) hainbat eta hainbat herritarrek egiten duten eskaria: bi erabileren artean (bainu-hartzaileak eta surflariak) egiten den espazio banaketa birpentsatu eta proportzionalagoa izango den banaketa ezartzea. Izan ere, egungo banaketa egokia ez dela bistakoa da: Zurriolan bainua hartzen bizitza osoa daraman edozein bizilagunek baieztatu dezakeen moduan, hondartzan bainu-hartzaileak duen tokia aldatzen joan da, bazterrera eramateraino.

Herritarrek udan erakutsitako ezinegonari entzun egin behar zaiola uste dugu, hondartzaren banaketa proportzionalagoa eta publikoagoa eginez. Ez da posible bainu-hartzailea baztertua sentitzea hondartzan, eta horregatik, udalak banaketa egokiagoa bilatzeko bidea hasi behar luke itsas-kapitaintzarekin eta sorosleekin batera, baita surf eskola eta surf elkarteekin ere, baina bereziki, bainu-hartzailearen ahotsa eta tokia errespetatuz.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari abiatu dezala Zurriola hondartzan inplikatura dauden eragile eta norbanakoekin batera banaketa berria adosteko prozesua.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari konprometitu dadila datorren hondartza-denboraldirako Zurriola hondartzaren zonifikazio proportzionalagoa ezartzera.

Donostian, 2025eko irailaren 19an

Izar Hernando Ibero

EH Bildu udal taldeko zinegotzia